

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOA

Behin-behineko langilearen izendapena bukatutzat ematea

2019ko ekainaren 15eko dekretuan xedatutakoaren ildotik, behin-behineko langile honen izendapena bukatutzat eman du alkateak:

Olatz Gallego Abiega behin-behineko langile gisa betetzen zuen Ahal dugu Podemos talde politikoko administrari laguntzaile lanpostutik kentzea, 2019ko ekainaren 15eko eragin-datarekin.

Hala ematen da argitara, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak – 11/1999 Legeak aldatua – 104. artikuluan xedatutako ondorioak izan ditzan.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 26an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE